



# Graduatu-Ondoko Ikasketak eta Prestakuntza Iraunkorra Hezkuntza-Eremuan 2010 - 2011



entitate laguntzailea



## MONDRAGON UNIBERTSITATEA

### Errektoretza

Loramendi, 4  
20500 ARRASATE-MONDRAGÓN  
(Gipuzkoa)  
tel. 943 71 21 85  
faxes 943 71 21 93  
info@mondragon.edu

### Goi Eskola Politeknikoa

#### Arrasateko Campusa

Loramendi, 4  
20500 ARRASATE-MONDRAGÓN  
(Gipuzkoa)  
tel. 943 71 21 83  
faxes 943 79 15 36  
imangana@eps.mondragon.edu

### Enpresagintza Fakultatea

#### Oñatiko Campusa

Ibarra Zelaia, 2  
20560 OÑATI  
(Gipuzkoa)  
tel. 943 71 80 09  
faxes 943 71 81 62  
postgrado@enpresagintza.mondragon.edu

#### Bidasoako Campusa

Ducourau Jauregia  
Hendaia, 8  
20301 IRUN  
(Gipuzkoa)  
te. 943 63 91 29  
faxes 943 66 70 22  
postgrado@enpresagintza.mondragon.edu

### Humanitate eta Hezkuntza

#### Zientzien Fakultatea

#### Eskoriatzako Campusa

Dorleta, z/g  
20540 ESKORIATZA  
(Gipuzkoa)  
tel. 943 71 41 57  
faxes 943 71 40 32  
sarrera@huhezi.mondragon.edu

## 2

### MONDRAGON UNIBERTSITATEA

## 4

### Graduatu ondoko programak

- |                                                                                                                                                                 |          |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------|
|                                                                                                                                                                 | <b>4</b> |
| - Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan master unibertsitarioa                                                                                 | 6        |
| - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan Irakasle gisa aritzeko gaitzen duen master unibertsitarioa | 8        |
| - Berrikuntza Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan master unibertsitarioa                                                                  | 9        |
| - Euskal Kulturgintzaren Transmisioan Unibertsitate aditu ikastaroa                                                                                             | 10       |
| - Hizkuntzen Kudeaketan Unibertsitate aditu ikastaroa                                                                                                           | 11       |

## 12

### Formazio arautua

- |                                                  |           |
|--------------------------------------------------|-----------|
|                                                  | <b>12</b> |
| - Psikopedagogian Lizentziatura: bigarren zikloa | 13        |

## 14

### Formazio ez arautua/formazio iraunkorra

- |                                                                    |           |
|--------------------------------------------------------------------|-----------|
|                                                                    | <b>14</b> |
| - Hizkuntzen Ikaste-Irakaste Prozesuak Testuinguru Eleanitzetan    | 15        |
| - Ikaste-Irakaste Prozesuaren Diseinua, Berrikuntza eta Hobekuntza | 15        |
| - Haur-Hezkuntza (0-6)                                             | 16        |
| - Hezkuntza eta Administrazio Lan-alorreko Euskara Espezialdua     | 16        |

# aurkibidea



---

# MONDRAGON UNIBERTSITATEA

---

## Giza garapenerako hezkuntza

Urtetan zehar lortutako esperientzia eta hezkuntza munduarekin izandako harreman estuari esker, Mondragon Unibertsitateak profesionali zuzendutako eskaintza zabala aurkezten du: XXI mendeko hezkuntza beharretara egokitutako nazioarte mailako prestakuntza.

### PRAKTIKOA

- Malgua eta moldagarria. Bizitza laborala eta akademikoa uztartzeko aukera.
- Esperientzia errealak. Gizartea eta hezkuntza munduarekin lotutakoak.
- Aplikagarria. Barneratutako ezagutzak praktikan jartzeko diseinatua.

### BERRITZAILEA

- Teknika, tresna eta ikasketa ereduetan.
- Etorkizuneko proiektuekin harreman zuzena.

### ERALDATZAILEA

- Gizartearekiko konpromisoa.
- Ekintzailetasuna sustatzeko helburuarekin: kultura, hezkuntza eta gizarte proiektuen aldeko apustua.
- Nazioartera begira. Mondragon Unibertsitatetik mundura.



## Graduatu-ondoko programa

- Ikaslearen eta irakaslearen arteko erabateko elkarreragina, irakaslearen orientazio-lana ikasleak kontzeptuak ondo barneratzeko oinarritzkoa baita.
- Eskoletan parte hartzea sustatzea, ikaskuntza prozesuan guztion esperientziak ezagutzea funtsezkoa baita.
- Ikuspegi praktikoa, gai guztiak errealitatean ezartzeko zuzendu behar baitira eta erreferentzia- enpresen esperientzia arrakastatsuetan oinarrituta egon behar baitute.

Gizartean gertatzen  
diren aldaketei  
aurre eginez





---


## Graduatu-ondoko programak

---

XXI. mendeko hezkuntzak gero eta gaitasun handiagoa duten profesionalak eskatzen ditu, egunez egun sortzen diren hobekuntza eta berrikuntza-beharrei erantzuteko formazio egokia izango dutenak.

HUHEZIK, Hezkuntza eremuko erakunde eta pertsonen desfioei ekarpenak eskaintzeko ahaleginean, graduatu-ondoko programa bat garatu du eta programa honetan hainbat ezagutza-arlotako masterrak nahiz unibertsitate aditu ikastaroak biltzen ditu.

Birziklatze profesionala,  
espezializazioa eta  
orientabide berria





---

## helburuak

---


HUHEZIK, graduatu-ondoko programen bidez, honako helburuak lortu nahi ditu:

- Ezagutza-arloekin lotutako gaitasun eta trebetasunak garatzea.
- Espezializazio handiko profesionalak heztea.

Hala bada, programa hauek ondorengo beharrei erantzuten diete:

- **Birziklatzeko beharrari:** formazio iraunkorreko programen bidez gaur egun sortzen diren ezagutzak eta trebetasunak eguneratzeko eta etorkizunari begira aurrerakun-tzak aurreikusteko.
- **Espezializatzeko beharrari:** ikerketa prozesuetan eta metodoetan nahiz ezagutza eremu baten profesionala gaitzeko eta espezializazio maila handiko profila osatu ahal izateko.
- **Lanean orientabide berria hartzeko beharrari:** aurreko ikasketen profilari ez dagozkion ezagutzak eskuratzeko eta norabide profesionala aldatzeko edo beste eremu batean lan egiteko aukera izateko.

Ikaslearen eta irakaslearen  
arteko erabateko elkarreagin





master unibertsitarioa

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea  
(HUHEZI)

## Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztasunetan

### HELBURUAK

- Profesionalak formatzeko gai direnak eleaniztasunaz eta multikulturalismoaz loturiko hainbat hezkuntza esparru kudeatzeko (ikastetxeko proiektu eleanitz eta kulturartekoa planifikatzea eta inplementatzea, eskolako eta aisialdiko hezkuntza-programak diseinatzea, baliabide didaktikoak sortzea eta egokitzea, hezitzaile gogoetsuak formatzea, eta abar);
- Ikasleen hezkuntza-premia integralei aurreratzen dakiten profesionalak formatzeko, beti ere, hizkuntza gutxituen testuinguruan, bigarren hizkuntzan, kulturartekotasunean, eta abar.
- Ikertzaileak formatzeko gai direnak arazoak identifikatzeko testuinguru multikultural eta eleaniztasunean.
- Profesional gogoetsuak, sortzaileak eta konprometituenak formatzeko, gizarte aldakorrera egokitzeko eta berau eraldatzeko gai direnak.

### PARTE-HARTZAILEAK

- Espezialista izan nahi dutenentzat multikulturalitate eta eleaniztasunaren esparruan.
- Hezkuntza arautuan eta ez-arautuan irakatsi nahi dutenentzat, adin eta egoera ezberdineko taldeekin.
- Prestatzaileak prestatu nahi dituztenentzat, ardura izango dutenak ikasleen bilakaera hizkuntzak eta kulturak garatzeari dagokionez.
- Material didaktikoen alorrean jardun nahi dutenentzat hezkuntza eleanitza eta kulturartekoa.
- Gai hauen inguruan gehiago sakondu nahi dutenentzat (gurasoak, elkarrekin...)

### EGITURA

Masterra %100 online irakatsiko da, MUDLE plataformaren bidez.

Masterra bai euskaraz, bai gazteleraz emango da. Ikasleak aukera izango du hizkuntza hautatzeko bere hizkuntza-profil eta aukeraren arabera.



Masterrak bi ibilbide izango ditu:

a. **Espezializazioa** ikaste-irakaste eleanitz eta kulturartekoan: 60 ECTS kreditu.

- **1. MODULUA: Oinarriak.**
  - Hezkuntza eleanitzaren oinarriak (Pili Sagasta dok.). 5 ECTS kreditu.
  - Kulturarteko hezkuntzaren oinarriak (Monika Madinabeitia dok.). 5 ECTS kreditu.
- **2. MODULUA: Kurrikuluaren alderdiak.**
  - Eleaniztasuna eta kulturartekotasuna arautzen dituzten politikak (Ignasi Vila dok.). 4 ECTS kreditu.
  - Ikastetxeko hezkuntza eta hizkuntza proiektua (Matilde Sainz dok.). 5 ECTS kreditu.
  - Ikastetxeko hezkuntza eta kulturarteko proiektua (Amelia Barquín dok.). 5 ECTS kreditu.
- **3. MODULUA: Eskuhartzea.**
  - Eskuhartze eleanitza (Eneritz Garro dok.). 5 ECTS kreditu.
  - Eskuhartze kulturartekoa (Elisabet Coelho). 5 ECTS kreditu.
- **4. MODULUA: Hausnarketa ekintzan.**
  - Ikerketa-ekintza eta praktika gogoetsua (Arantza Ozaeta dok.). 6 ECTS kreditu.
- **5. MODULUA: PRACTICUMA.** 6 ECTS kreditu.
- **6. MODULUA: Master amaierako lana.**
  - Master amaierako lana. 14 ECTS kreditu.

b. **Ikerketa** ikaste-irakaste eleanitz eta kulturartekoan: 60 kreditu.

- **1. MODULUA: Oinarriak.**
  - Hezkuntza eleanitzaren oinarriak (Pili Sagasta dok.). 5 ECTS kreditu.
  - Kulturarteko hezkuntzaren oinarriak (Monika Madinabeitia dok.). 5 ECTS kreditu.



## Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan

- **2. MODULUA: Ikerketari loturiko prestakuntza.**
  - Doktore tesia egiteko jarraibide metodologikoak. 5 ECTS kreditu.
  - Informaziorako konpetentziak: informazio zientifikoa eta bibliografiaren kudeaketa (Aitor Zuberogitia dok.). 5 ECTS kreditu.
  - Ikerketarako metodo kuantitatiboak (Iñaki Garcia dok.). 5 ECTS kreditu.
  - Ikerketarako metodo kualitatiboak. 5 ECTS kreditu.
- **3. MODULUA: Eskuhartzea.**
  - Eskuhartze eleanitza (Eneritz Garro dok.). 5 ECTS kreditu.
  - Eskuhartze kulturartekoa (Elisabet Coelho). 5 ECTS kreditu.
- **4. MODULUA: Master amaierako lana.**
  - Praktikak eta master amaierako lana. 20 ECTS kreditu.

### METODOLOGIA

Masterraren metodologia aktiboa da eta oinarritzen da honako honetan: (*"Arazoen ebazpenean oinarrituriko Ikaskuntza eta proiektu bat garatzeari zuzendua (Project oriented problem-based learning, POPBL)"*). Proiektu hori ikasketen hasierako fasean antzematen da, eta masterra egin ahala gauzatzen da (ikus taula)..

### ANTOLAMENDUA

Koordinatzailea: Arantza Ozaeta  
arantza\_ozeta@huhezi.edu  
943.71.41.57. ext. 140

### EGUTEGIA


Izen-ematea: maiatza-ekaina bitartean. Matrikula uztailean.  
Masterraren hasiera 2010eko urria. Bukaera, 2011ko uztaila.

### MATRIKULA KOSTUAK

4.950 Euro.

### MODULO ESKAINTZA

Ikasleak moduloka edo materiaka egiteko aukera du.  
Jasotako zertifikazioa egindako materien edo moduloen araberakoa izango da.





master unibertsitarioa

Derrigorrezko ikastaroa Bigarren Hezkuntza, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan eskolak emateko.

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea  
(HUHEZI)

## Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan Irakasle gisa aritzeko Gaitzen duen Master Unibertsitarioa

### HELBURUAK

Besteak beste konpetentzia profesional hauek garatuko dira:

- Dagokion espezializazioko ikasgaietako curriculum proposamenak ezagutzea eta hausnarketa egitea.
- Irakaskuntza- eta ikasketa-prozesua planifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko irizpideak garatzea, hezkuntza sistemaren etapa ezberdinei begira.
- Ikasketa-guneak diseinatu eta garatzea, arreta berezia eskainita honako arloei: ekitatea, heziketa emozionala eta baloreena, eskubide- eta aukera-berdintasuna, hiritar-heziketa eta giza-eskubideekiko begirunea, erabakiak hartzea eta etorkizun iraunkorra eraikitzea.
- Estrategiak eskuratzea ikaslearen ahalegina sustatzeko eta bere kabuz zein beste batzuekin ikasteko gaitasuna indartzeko.
- Ikasgelako elkarrekintza eta komunikazio-prozesuak ezagutzea.
- Tutore- eta orientatzaile-lanak egin lankidetzan eta modu koordinatuan; parte hartu irakaskuntza- eta ikerketa-prozesuen ebaluazio, ikerketa eta berrikuntzan.
- Familiei informazioa eta aholkuak eskaini beren seme-alaben ikasketa- eta irakaskuntza-prozesuari buruz, zein haien orientazio pertsonal, akademiko eta profesionalari buruz.

### PARTE-HARTZAILEAK

Bigarren Hezkuntzan (DBH, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan) lan egin nahi duten lizentziatuak. Honako jakintza eremuetan: Hizkuntzak eta Literatura, Zientzietan, Gizarte-Zientzietan eta goi-mailako ingeniariak edo ingeniari teknikoak.

### EGITURA

Kursoaren iraupena 60 ECTS kreditukoa izango da, honela banatuta:

Derrigorrezkoak.

- Materia generikoak eta espezifikoak, 36 ECTS kreditu, 900 ordu.
- Practicumekoak, 10 ECTS kreditu, 250 ordu.
- Master Amaierako Lanekoak, 6 ECTS kreditu, 150 ordu.

Hautazkoak.

- Orokorrak edo hezkuntzako etapa/modalitatearen araberakoak, 8 ECTS kreditu, 200 ordu.

Total: 60 ECTS kreditu, 1500 ordu.

(\*) Kredituko ordu kopurua 25ekoa izango da, aurrez aurrekoak %65.

### ANTOLAMENDUA

Koordinatzailea: Xabier Arregi Murgiondo.


Talde Kudeatzailea: Espezialitatetako koordinatzaileak, materia komunetako koordinatzaileak eta idazkari akademikoak.

### EGUTEGIA

2010ko urriti k– 2011rako ekaina.

### MATRIKULA KOSTUAK

4.950 Euro.



master unibertsitarioa

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea  
(HUHEZI)

## Berrikuntza Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan (ANCA-ren zertifikazioaren zain)

### HELBURUAK

Masterraren helburu orokorra hauxe da: berrikuntza metodologikoa duten proiektuak sortu eta kudeatzea, heziketa-ingurunean dauden premia eta aukeren inguruan gogoeta eginez, estrategia berriak eta interbentzio-baliabideak kontzeptualizatuz, proposamen berritzaileak gauzatzeko ekintzak bideratuz eta emaitzak ebaluatuz.

### PARTE-HARTZAILEAK

Masterra hezkuntzan diharduten profesionaliezuzenduta dago: hezkuntza zentroak, hezkuntza administrazioa eta hezkuntzan diharduten beste erakundeak, hain zuzen, zeregin ezberdinetatik berriztapen-proiektuak sustatu, diseinatu eta kudeatzen dituztenak, hala nola, zuzendaritza, koordinazioa, irakasleria eta hurrengo jardun-eremuetan:

- Curriculumaren edukiak
- Hezkuntzako eremu berriak identifikatu eta garatzea
- Baliabidea didaktikoak sortzea IKTak erabiliz.
- Proposamen didaktiko berritzaileak.
- Irakaslanari buruzko gogoeta eta irakasleriaren rol berriak.
- Aldaketa metodologikoari lotutako prestakuntza beharrak.
- Aldaketa metodologikoari lotutako ebaluazio-proposamenak.

Ikasleak aukeratutako ibilbidearen arabera, profil honetaz gain, Doktorego programara sarbide ematen duen ikerketa-ibilbide espezifikoak egin ahal izango du.

### METODOLOGIA

- Ikaslea dugu ikaskuntzaren ardatza. Ikasleak zuzendutako proiektuak bere prestakuntza-ibilbidea markatuko du.
- Metodologiak honako alderdiak biltzen ditu: kasuen azterketa, egoerei buruzko azterketa eta hausnarketa, informazioaren bilaketa nahiz eztabaida eta proiektuan oinarritutako bestelako metodologiak.
- Modalitate erdi-presentziala (%50 aurrez aurrekoa - %50 on-line).

### EGITURA

Masterraren titulazioa lortzeko ikasleak 60 ECTS egin beharko ditu.

20 ECTS Derrigorrezkoak diren arlo komunean

20 ECTS Masterraren bi ibilbideen artean aukeratuta:

- 20 ECTS Ikerketa-ibilbidea bloketik, ikerketa-ibilbidea egingo duten ikasleentzat.
- ECTS Berrikuntzaren garapena eta kudeaketa Hezkuntza Erakundeetan bloketik hartuta.

20 ECTS Praktikak eta Master amaierako proiektua.

### Materia komunak

- Gizarte-aldaketa eta hezkuntzaren erronkak, 4 ECTS.
- Perspektiba berriak curriculumaren edukien diseinu eta definizioan, 3 ECTS.
- Berrikuntza irakatsi eta ikasteko prozesuetan, 5 ECTS.
- Berrikuntza baliabide didaktikoetan: Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT), 4 ECTS.
- Berrikuntza erakundearen kulturaren eta bere kideen arteko harreman zein roletan, 4 ECTS.

### Ikerketa-ibilbidearen materialak

- Ikerketa-proiektuen diseinua, 5 ECTS.
- Informazio-kompetentziak: informazio zientifikoa eta bibliografiaren kudeaketa, 5 ECTS.
- Ikerketa kuantitatiboari buruzko metodologia, 5 ECTS.
- Ikerketa kualitatiboari buruzko metodologia, 5 ECTS.

### Berrikuntzaren garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan ibilbidearen materialak

- Hezkuntza-erakundeetan aldaketa eragiteko estrategiak, 4 ECTS.
- Irakatsi eta ikasteko prozesuetan, berrikuntza proposamenen diseinua eta garapena, 8 ECTS.
- IKTen bidezko berrikuntzaren garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan, 4 ECTS.
- Praktikari buruz gogoeta egin, hobetzeko tresna gisa, 4 ECTS.

### ANTOLAMENDUA

Zuzendaria: Mariam Bilbatua. Hezkuntza Zientzietan Doktorea. ICE-HEZIKo zuzendaria Mondragon Unibertsitatean. HUHEZIKo irakaslea.

### EGUTEGIA

2011ko urtarrila-2011ko abendua

### MATRIKULA KOSTUAK

4.950 Euro.

### MODULO ESKAINTZA

Ikasleak moduloka edo materiak egiteko aukera du.

Jasotako zertifikazioa egindako materien edo moduloen arabera izango da.



## unibertsitate aditu ikastaroa

Unibertsitatez kanpoko irakasleentzako prestakuntza ikastaro moduan homologatua dago, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko 2007ko urriaren 23ko Ebazpen bidez.

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea  
(HUHEZI)

## Euskal Kulturgintzaren Transmisioan

### HELBURUAK

- Euskal Kulturgintzari buruzko ezagutza barreiatua korpus baten biltzea, eta formazio dialogiko baten bidez transmititzea. Horren baitan, kulturgintzan azken hamarkadetan sortzaileek izandako kezka, ikuspegi, zailtasun, apustu eta esperientziak belaualdi berri bati ezagutaraztea.
- Gure kulturgintzak dituen ortzi-mugen eta desfioen aurrean formazio multifokala eta praktikoa egitea, eragileei jakintza-tresnak emanez.
- Kulturgintzaren transmisioan izandako estrategia eta esperientzia partzialak beste alorretakoen eskura jartzea.
- Aurretik esandako guztiak (korpus baten sorkuntza, desfioen gogoeta multifokala, esperientzien transmisioa) bi multzo harremanetan jarriz egitea: batetik aritu eta adituen multzoa, eta bestetik gai honetan jantzi nahi duten gaurko eta etorkizuneko eragileen multzoa.
- Hiru aditzetan helburuak bilduta:
  - Ezagutza bildu.
  - Ezagutza sortu.
  - Ezagutza transmititu.

### PARTE-HARTZAILEAK

- Arlo desberdinetako profesionalak, (irakasle, kultur teknikari, kultur programatzaile, euskara teknikari, kazetari...) euskal kulturgintzari lotutako lanetan ari direnak.
- Halaber, etorkizunean gai hau ukitzen duten arloetan jarduteko asmoa duten lizentziatu edo diplomatu berriak. Unibertsitate mailako ikasketadunak izango dira ikasleak, humanitate, gizarte zientzia, hezkuntza eta inguruko gaietakoak.

### EGITURA

Titulu honek 15 ECTS kreditu izango ditu guztira eta hauek izango dira formazioaren eduki-arloak:

1. Formazio teorikoa: adituak mintzo.
  - Hizkuntza komunitateen dinamikak. Kulturgintza kokatzeko oinarriak.
  - Egungo gizarte aldaketak eta kulturgintza.
  - Egungo teknologia aldaketak eta kulturgintza.
  - XXI. mendeko egoeran euskal izaeraz gogoeta.
  - Kulturari buruzko diskurtso desberdinak euskal komunitatearen historian.
  - Kulturgintzaren garabideak:
    - a. Kulturgintzaren hezkuntza-transmisioa.
    - b. Kulturgintza, hedabideak eta komunikazio-teknologiak.
    - c. Sorkuntza eta hedapen estrategiak.
2. Testigantzen bidezko formazioa: arituak mintzo.
  - Kantagintza. Bideak eta norabideak.
  - Literaturgintza. Sorkuntza eta proiektua.
  - Bertsolaritza. Hogei urteko estrategia mamitua.
  - Beste hainbat kultur bide. Esperientziak eta ortzimugak.
  - Oinarrigintza. Egitura-esperientzia.
3. Oldozpena eta ekoizpena: oro mintzo.
  - Euskal kulturgintzaren garabideak.
  - Proiektua.

Guztira: 330 ordu.

### ANTOLAMENDUA

Batzorde pedagogikoa: Julen Arexolaleiba, Jon Sarasua, Andoni Eizagirre, Nekane Goikoetxea, Lorea Agirre eta Iñaki Urruzola.

### EGUTEGIA

2010eko urria - 2011ko ekaina.

### MATRIKULA KOSTUAK

2000 Euro.



## unibertsitate aditu ikastaroa (erdi-presentziala)

Unibertsitatez kanpoko irakasleentzako prestakuntza ikastaro moduan homologatua dago, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko 2007ko urriaren 23ko Ebazpenen bidez.

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea  
(HUHEZI)

## Hizkuntzen kudeaketa

### HELBURUAK

Hizkuntzen kudeaketan (irakaskuntzan, hizkuntzen planifikazioan, euskararen normalizazio plangintzetan...) lanean ari diren profesionalak prestatzea.

- Etengabeko formaziorako beharra ikusaraztea. Ikasten ikastea.
- Hizkuntzen kudeaketarako ikuspegi estrategikoa garatzea.
  - Egoera berrietara egokitzeko.
  - Egoera zailagoetara egokitzeko (haratago joaten laguntzen digutenak).
- Hizkuntza dela medio eta helburu, proiektu eta pertsonen kudeaketarako metodologia eta baliabideak aukeratzeko eta garatzeko iriz-pideak finkatzea.

### PARTE-HARTZAILEAK

- Hizkuntzen kudeaketan lanean ari diren unibertsitate tituludunak (goi eta erdi mailako tituludunak).
- Profesional horiek jatorri akademiko ezberdinetakoak izan ohi dira: filologoak, soziologoak, kazetariak, irakasleak, psikologoak, pedagogoak, psikopedagogoak, etab. Beraz, titulu honek aukera emango die horiek guztiak bildu eta komunean hainbat ezagutza, prozedura eta jarrera garatzeko eta eraikitzeko.

### EGITURA

Eskaintzen den tituluak 33 kreditu izango ditu guztira. Aukeratutako ikasgaietatik batek gutxienez epistemologiaren ingurukoa izan behar du, eta beste batek eleaniztasunaren ingurukoa. Gainerako kredituak agortzeko HUHEZIK eskaintzen dituen ikasgaien artean aukeratuko du ikasleak 30 kreditura iritsi arte. Partaide bakoitzak bere proiektua egingo du 30 kredituak agortu ondoren.

#### 1. Derrigorrezko moduluak.

- Epistemologiaren inguruko ikasgai bat.
- Eleaniztasunaren inguruko ikasgai bat.

#### 2. Hautazko moduluak.

- Hizkuntzen didaktikarako marko epistemologiko eta didaktikoa (6 k.).
- Eleaniztasunaren kontzeptualizazioa (4,5 k.).

- Irakaskuntza eleanizduna (6 k.).
- Hizkuntzen curriculum bateratua (6 k.).
- Gizarte Psikologia (6 k.).
- Soziolinguistikaren hastapenak (4,5 k.).
- Ahozko hizkuntza formalaren ikaskuntza-irakaskuntza (4,5 k.).
- Ahozko azalpena (4,5 k.).
- Kulturarteko hezkuntza (4,5 k.).
- Edukien bitarteko hizkuntzaren metodologia (4,5 k.).

#### 3. Ikastaro Amaierako Proiektua (3 kreditu).

Guztira: 330 ordu.

### ANTOLAMENDUA

Koordinatzailea: Nagore Iñurrategi Psikopedagogiako koordinatzailea eta HUHEZIKO irakaslea.

### EGUTEGIA

2010ko urria - 2011ko ekaina.

### MATRIKULA KOSTUAK

2.415 Euro.

“ hizkuntzen kudeaketan lanean  
ari diren profesionali  
zuzenduta ”






---

## formazio arautua

---

lanean ari diren edo aurretik  
beste ikasketa batzuk egin dituztenentzako  
ikasketa arautuak





on-line eta erdi-presentziala,  
Eskoriatzan

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea  
(HUHEZI)

## Psikopedagogian Lizentziatura: bigarren zikloa

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK Psikopedagogia lizentziaturan bi ibilbide eskaintzen ditu (BOE 2000ko abenduaren 15a). Katalogo honetan zehazten dugunez, zenbait gai komunak dituzte eta beste zenbait bakoitzari dagozkionak.

Bi ibilbideetako lizentziatuak titulu bera jasoko dute: Psikopedagogian lizentziatua. Hizkuntzen Psikopedagogian lizentziatuek, gainera, MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN "Hizkuntzen Psikopedagogoaren titulua" jasoko dute.

### TESTUINGURATZEA

Psikopedagogian lizentziatura bigarren zikloko ikasketa izanik, lanean diharduten profesionalek interes handia agertzen dute ikasketa hau egiteko. Hori dela eta, era guztietako ikasleei erantzun nahian, ondorengo neurria hartu da:

- Presentzialitatea murriztea. Horretarako on-line eta erdi-presentzial erara jartzea.

### HELBURU ESTRATEGIKOAK

Karrera osoan zehar, eta baita ikasgai bakoitzean ere, gaiari dagozkion kompetentzia akademikoak eta metodologikoak ez ezik, ondorengo helburu estrategikoak ere planteatzen dira, ikaslearen formazio teknikoaz gain, beste kompetentzia hauek garatzea bilatzen baita:

Lizentziatura Esku-hartze Psikopedagogikoan:

- Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko ezagupenak lantzea eta garatzea.
- Ekimena izateko, ikasteko eta erabakiak hartzeko gaitasuna izatea.
- Ahoz zein idatziz komunikatzeko trebe izatea.
- Harremanetan jartzeko, taldeak gidatzeko eta taldean lan egiteko gaitasuna garatzea.
- Hezkuntzarekin zerikusia duten praktikak egitea.
- Errealitatera egokitutako proiektua garatzea.
- Egoera zail eta gatazkatsuak optimizatzen ikastea.

Lizentziatura Hizkuntzen Psikopedagogian:

- Hizkuntzaren kalitatea hobetzeko ezagupenak lantzea eta garatzea.
- Ekimena izateko, ikasteko eta erabakiak hartzeko gaitasuna izatea.
- Ahoz zein idatziz komunikatzeko trebe izatea.
- Harremanetan jartzeko, taldeak gidatzeko eta taldean lan egiteko gaitasuna garatzea.

- Hizkuntzekin jarduten diren erakundeetan praktikak egitea.
- Errealitatera egokitutako proiektua garatzea.
- Egoera zail eta gatazkatsuak optimizatzen ikastea.

### EZAUGARRIAK

Lizentziaturaren iraupena:

Bi urtetako lizentziatura da. Azkeneko urtearen amaieran Ikasketa Bukaerako Proiektua egingo da. Ikasketa Bukaerako Proiektuan, ikasleak bilduko ditu curriculumean zehar "ikasitako kontzeptuak" eta "ikasitako prozedurak" (koherentzia, komunikatzeko gaitasuna, metodologia egokia aplikatzeko gaitasuna, errealitatera hurbiltzeko gaitasuna...). Horrela, ordura arte lanean aritu ez den ikasleari errealitatera hurbiltzeko parada emango zaio, eta, dagoeneko lanean diharduen ikasleari, berriz, bere lanean hobekuntzak egiteko aukera aparta. Proiektua ikasleak aukeratutakoa izango da eta tutore baten laguntza izango du.

Formazio mistoa: presentziazkoa eta inguru birtualekoa:

Interesatu guztiengana heldu nahian, kalitatezko irakaskuntza mistoa eskaintzen dugu: presentzialitate minimoarekin eta programa informatikoen bitartezkoa-irakaslearen tutoretza zerbitzua barne. Informatikaz ezer jakin gabe ere erabili ahal izango da programa informatikoa:

- Ikasturte hasieran ikasleak gela birtuala erabiltzeko formazioa jasoko du.
- Telefono bidezko laguntza eskainiko da ikasturtean zehar.

Horretarako, gutxienez, Pentium II motako ordenadorea, 64 Mb RAM memoria eta 4 Gb-ko disko gogorra duen ordenadorea behar du ikasleak.

Sarrerarako baldintzak:

Bigarren zikloko lizentziatura den aldetik, ikasketa hauek egingo dituzten ikasleek ondoko ikasketaren bat egin behar izan dute:

- Irakasle diplomatura.
- Hezitzaile sozialean diplomatura.
- Pedagogiako lehenengo zikloa.
- Psikologiako lehenengo zikloa.

Kredituak:

Guztira 150 kreditu dira. Kreditu osagarriak bete behar dira, bakoitzaren jatorriaren arabera. Kreditu horiek guztiak aukeratutako ibilbidean bete ahal izango dira.



---

## formazio ez arautua

---

### formazio iraunkorra

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak esperientzia zabala garatu du irakasleen formazio iraunkorrean. Eskoriatzako Irakasle Eskola gisa Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta beste erakundeek egindako formazio eskaerei erantzun die azken 30 urteetan.

Fakultateak irakasleen formazioaren alorrean garatu dituen gai teknikoengatik inguruko formazio eskaintzaren bidez bi helburu lortu nahi dira:



- Hezkuntza ereduaren eta formazio jardueren kalitatea hobetzeko tresnak eskaintzea.
- Unibertsitatearen jardura akademikoa errealitatean ematen den problematikarekin uztartzea.

Formazio iraunkorrean egiten den eskaintza malgu da eta erakundeen beharren arabera egokitzeko aukera aurreikusten da.

Eskaintza honek, bestalde, balio akademikoa eduki dezake baldin eta eskaintza modularren bidez gainditzen badira formazio tituluek eskatzen dituzten baldintzak.

Formazio iraunkorrean eman daitezkeen kurtsoez gain aholkularitza lanak ere eskaintzen dira, bai eremu zeha-tzen ezarpenean, bai eta proiektuen ebaluazioan.

Hezkuntzaren  
kalitatea  
hobetzeko tresna





## Hizkuntzen Ikaste-Irakaste Prozesuak Testuinguru Eleanitzetan

Gure Hezkuntza Sistemak eredu eleanitza bultzatzen du. Ikasleek egoera desberdinetatik abiatuz curriculumeko hiru hizkuntzetan gaitasun maila desberdinak garatu behar dituzte. Prozesuak arrakastaz bideratzeko derrigorrezkoa egiten da diseinu zein metodologia mailako tresna egokiak erabiltzea. Hona hemen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak jorratu dituen arloak.

### IKASTE-IRAKASTE PROZESU ELEANITZEN DISEINUA ETA EZARPENA

Curriculumaren diseinua:

- Hizkuntzen curriculum bateratua.
- Egoera soziolinguistikoari erantzuten dizkioten egokitzapenak.
- Ahozkoaren curriculumaren eratzeko irizpideak.

Hizkuntzen ikaskuntzari zuzendutako proposamen didaktikoen diseinua eta ezarpena:

- Sekuentzia Didaktikoen elaborazioa eta ebaluazioa.
- Hizkuntzen ikaskuntza curriculumeko beste arlo batzuen bitartez (edukien bitarteko metodologia).

### EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEKO PROGRAMAK

- Hizkuntza egoeren diagnostika.
- Lanabesak eta baliabideak.
- Motibazioa eta jarrerak.
- Hizkuntzekiko identifikazioa.

### EUROPAKO ERREFERENTZI MARKO BATERATUKO C2 MAILA

- Trebakuntza testugintzan.
- Ahozkotasuna lantzeko trebakuntza.

### KULTURARTEKOTASUNA

Kulturartekotasuna gaur egungo hezkuntzaren berezitasuna da. Ikasleek kultur desberdintasunak aintzakotzat ez hartzeak ikasleek aukeren desberdintasuna sortzen du eta ondorioz batzuren diskriminazioa. Horren aurrean beharrezkoa ikusten da desberdintasun hauek gainditzen lagungarria izando den eskola ereduak garatzea.

- Giza harremanak bultzatzen duen eta norbanakoen irudi baikorra bultzatzen duen ereduaren diseinua.
- Ama hizkuntzaren erabilera bultzatzen duten eta euskara indartzen duten programen diseinua.



## Ikaste-Irakaste Prozesuaren Diseinua, Berrikuntza eta Hobekuntza

XXI. mendeko erronkei erantzuneko dieten pertsonak ezin ditugu hezi XIX. mendeko metodologiak erabiliz. Bizitza osoko ikaskuntzarako eta pertsonaren garapen osoa ahalbidetzen duen paradigma berri bat ari da garatzen eta horren adierazleak dira irakaste-ikaste prozesua bideratzeko garatzen ari diren metodologia berriak. Metodologia berri hauen ezarpenari lotuta azaltzen da ondorengo eskaintza.

### IRAKASKUNTZAN OINARRITUTAKO PROZESUETATIK IKASKUNTZAN OINARRITUTAKO PROZESUETARA

- Ikaskuntzan oinarritutako prozesu didaktikoen ezarpena eta garapena.
- Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza.
- Kasuetan Oinarritutako Ikaskuntza.
- Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza.

### KONPETENTZIETAN (JAKIN, EGITEN JAKIN, ELKARREKIN BIZITZEN JAKIN, IZATEN JAKIN) OINARRITUTAKO CURRICULUMAREN DISEINUA

- Profila definitzeko irizpideak.
- Curriculumaren diseinatze eta ebaluatze irizpideak eta tresnak etapa desberdinetan.

### IRAKASLEEN PROFIL PROFESIONALAREN BIRDEFINIZIOA ETA FORMAZIOA.

#### IRAKASLEEN PROFIL BERRIA

- Profil berriari zuzendutako Formazio Beharren Diagnostikoa.
- Formazio Planen diseinua.

### IKASLE PROZESUAREN KUDEAKETA

- Irakasle-ikasle arteko elkarrekintza.
- Motibazioa.
- Ikaskidetza bultzatzeko estrategia metodologikoak.

### GUZTIENTZAKO ESKOLA: ANIZTASUNARI ERANTZUNA

- Ikastetxean eta Gelan gertatzen diren egoerak behatzeko eta kudeatzeko tresnak:
  - beharren diagnostikoa.
  - baliabideen aukeraketa eta egokitzapena.
- Aniztasunaren trataera errazteko orientazio eta tutoretzaren prozesuak.



## Haur-Hezkuntza (0-6)

### PRESTAKUNTZA

Haur Hezkuntza garrantzi handiko etapa da, azken batean, bertan eraikitzen baitira nortasunaren oinarriak. Oinarrien eraikuntzan, haurrengan eragin handia dute bere inguruko pertsonak zein testuinguruek; hau da, irakasleak eta gurasoak eta eskolak eta testuinguru familiarrak. Helduek testuinguru horietan hobeto esku-hartzeko helburuarekin hainbat eduki landu daitezke:

- Haurraren garapen ebolutiboaren oinarriak.
- Esku-hartzerako estrategia metodologikoak:
  - Haurraren eta irakaslearen rola.
  - Espazioaren antolaketa.
  - Denboraren antolaketa.
  - Hezkuntza artistikoa.
  - Proiektu globalizatzaileak, tailerrak eta bestelako lan egiteko moduak.
  - Familiakiko eta komunitatearekiko harremanak.
- Material didaktikoen sorkuntza.
- Hezkuntza Proiektuak eta Curriculum Proiektuak.
- Haur eskolen ebaluazioa.

### AHOLKULARITZA

Ohiko prestakuntzaz gain, eskaintzen da proiektu zehatzetarako aholkularitza zerbitzua. Zerbitzu horrek nagusiki bi esparru jorratzen ditu:

Proiektu psikopedagogikoa eta arkitektonikoa:

Aholkularitza eskaintzen da proiektu psikopedagogikoa ebaluatzeko eta hobetzeko, modu horretan, haurraren garapen ebolutibo osasuntsua baimentzeko. Aholkularitzak hainbat gai jorra ditzake: hezitzailearen rola, espazioaren antolaketa, denboraren antolaketa, oinarri metodologikoak, etxetik eskolarako trantsizioa, hezkuntza artistikoa, familia-eskola harremana, materialen sorkuntza... Bide batez, aholkularitza zerbitzua eskaintzen da 0-6 adin tartean eraikuntza berriak diseinatzeko, proiektu berriak abian jartzeko edo birmoldaketak egiteko.

Hezkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua:

Aurrekoarekin loturik, aholkularitza zehatza eskaintzen da 0-6 adin tarterako Hezkuntza Proiektuak edo Curriculum Proiektuak sortzeko edo moldatzeko.

### EBALUAZIOA

Hobetzeko ebaluazioaren ildotik, 0-6 adin tarteko haur eskolak osotasunean ebaluatzen dira. Frogatutako tresnekin, haur eskolen ebaluazio sakonak egiten dira azalean gelditzeko zentroaren alderdi indartsuak eta hobetu daitezkeenak. Modu horretan, diagnostiko lan sakona egiten da eta, bide batez, hobetu beharreko urratsen berri ematen da, beti ere, esku-hartzea hobetu eta ondorioz, haurraren garapena aberasteko asmoz.



## Hezkuntza eta administrazio lan- alorretako euskara Espezialdua

Gure helburua da herri-administrazioetan eta irakaskuntzan diharduten langileei goi mailako hizkuntza-prestakuntza eskaintzea.

Gaur egungo gizartean badira hainbat lan-arlo hizkuntza-gaikuntza berezia eskatzen dutenak, eta horretarako nahitaezkoa da gaitasun komunikatiboa, linguistikoa, estrategikoa, testuala eta soziopragmatikoa goi mailakoa izatea.

Europako Erreferentzi Markoa hizkuntza modernoan arloko profesionalentzat prestatu da, eta hizkuntzen irakaskuntzaren eta ikaskun-tzaren helburuei eta metodologiari buruzko gogoeta sorraraztea du helburu, eta baita kurrikulua garatzeko, eta programak, azterketak eta ebaluazio-irizpideak zehazteko oinarri bateratua eskaintzea ere, hezkuntza- eta lanbide-arlo batzuetatik besteetarako igarobidea erraztearen.

Hori guztia oinarri hartuta, erreferentzi marko bateratuan, eta eskala orokorrean, erabiltzaile gaituari esleitzen zaizkion kompetentzietan, honakoa dio Markoak: C2- Gai da irakurtzen edo entzuten duen ia guztia erraz ulertzeko. Badaki idatzizko nahiz ahozko iturri desberdinetatik datorren informazioa eta argudioak berreraikitzen, eta era koherentean eta labur adierazten. Badaki bat-batean, jariatutasun handiz eta zehaztasunez gauzak adierazten, eta esanahiaren ñabardura txikiak bereizten ditu, baita konplexutasun handiko egoeretan ere.

Horrela bada, bi lan-arlo horietarako bereziki prestatutako ikastaroetan, idatzizko lan-testuetatik abiatuta hainbat atazaz osaturiko sekuentzia didaktikoetan zehar murgilduko dira ikasleak.

Ikastaroak aurrez aurre eskaintzen ditugu, bai eta on-line ere.